



**Hedabideei begira,
betaurreko moreak jarrita.**

MAITE ASENSIO LOZANO

Bidebarrieta, Bilbo, 10:00



2015eko azaroaren 25a
Biblioteca Bidebarrieta, Bilbo

Egitaraua/Programa

- 10:00.** **Sarrera /** Introducción
- 10:15.** **Hitzaldia /** Conferencia **MAITE ASENSIO (Berria)**
- 11:00.** **Eztabaida /** Debate
- 11:30.** **Elkarretaratzea Arriaga aurrean /** Concentración en frente del Arriaga

Emakumea bere bakardadean (benetan gertatua)

Maite Asensio Lozano, Berrria 2012/10/28

Bilbo, urriaren 25ean. Prentsaurreko batetik atera berritan, erredakziorako bidea hartu dut, Areatzatik. Sakelakoa eskuan ikusi didan emakume batek geldiarazi nau: bere telefonoa bateriarik gabe geratu dela, ea nirea utziko diodan, mutil-lagunari abisatzeko, bere bila etor dadin, dirurik ere ez baitauka. Banku batean eserita dago, urduri; larritasunez mintzatu da, baina zintzoa dirudi. Sakelakoa luzatu diot.

Mutil-lagunak amatatua du telefonoa; beraz, sms baten bidez jakinarazi diogu emakumea zain duela. Mezua bidali bezain pronto esan dit agian bikotekidea ez zaiola etorriko. Urruntze agindu bat duelako. Inozotasunez galdetu diot ea mutilak jotzen duen, jakinda segur aski ez didala egia esango, ezezagun baten aurrean ukatu egingo duela hain ahul sentiarazten duen hori. Erantzun ere ez dit egin. «Ez da nire bila etorriko; zergatik etorriko litzateke ba? Ez dut ezer balio, baina etorri behar du; ez daukat beste inor. Eta, gainera, edanda nago».

Indarkeriaren zikloaren ondorioak antzeman ditut haren jarreran: autoestimu baxua, txarto tratatzen duenarekiko mendekotasun emozionala, erruduntasun sentimendua, salaketa jarri izanaren damua... Alboan eseri natzaio. Kontatu dit oso maite duela mutila, eta ez dela hain txarra; aitortu du agian haserre etorriko dela, baina uste du azkar pasatuko zaiola. Galdetu diot ea zer gertatuko den haserrealdia pasatu aurretik zaplazteko bat ematen badio, eta negarrez hasi da, dardarka.

Bikotekide ohiari ez itxaroteko eta etxera joateko konbentzitu dut: loaren eta atsedean hartu osteko dutxaren ideiak erakarri du. Inozotasunez —berriro— agindu diot udaltzainek eramango dutela; ez zaio ideia askorik gustatu, baina pixkanaka limurtu dut.

Udaltzainen auto bat geldiarazi dut, 50 metro ibilita ikusi dudana bigarrena. Poliziei azalpenak eman dizkiedan bitartean, bi ertzain hurbildu zaizkio emakumeari: bikotekide ohiak jakinarazi die neskak deitu diola, eta bera ezin dela joan, aldentez aginduagatik. Ertzainengana heldu garenerako amore eman dute, eta andrearengandik urrundu dira. Halere, galdetu diet ea etxera eraman dezaket. «Gu ez gara taxistak», erantzun dit batek; besteak erantsi du gehienez ere anbulantzia bat eska

dezaketela, baina emakumeak esan diela ez duela laguntzarik nahi. Eta udaltzain batek ondorioztatu du andrearen eskubidea dela laguntzari uko egitea, eta eskubideak errespetatzen dituztela haiek.

Poliziek mozkor bat ikusi duten lekuan, laguntza behar duen emakume bat ikusi dut nik. Horregatik, lau gizonon enpatia eta errukia azaleratzen saiatu naiz, modu batera edo bestera, azalduz tratu txarrak jasan dituela eta normala dela zalantzak edukitzea. Alferrik: bost minutu galdu ditugu balizko eskubideez eta ustezko lege mugez eztabaidatzen. Saiatu naiz, halaber, gizarte zerbitzuei emakumearen berri eman diezaieten —salaketa jartzen dutenen datuak dauzkatelako—, arreta psikologikoa eskain diezaioten, baina horretan ere alferrik: ez daukate horretarako tresnarik, ezta gogorik ere.

«Ez dut nire lanpostua arriskuan jarriko pertsona bat laguntzeko» esanez alde egin du taxi gidari konplexua duen ertzainak, eta beste hirurak atzetik. Inozotasunez —hirugarrenez— galdetu diot neure buruari nola litekeen herrizaingoaz arduratzen direnek babesik gabe uztea indarkeria matxistaren biktima bat. Areago, berariazko trebakuntza jaso omen dute-larik.

Emakumearengana itzuli naiz, eta bankutik altzarazi dut. Erretzeari utzi berri dionak zigarreta bat pizteko tentazioa duenean, eskertu egiten du norbaitek gogora diezaion zergatik utzi dion erretzeari. Inoiz berriro erreko ez duela pentsatzea baino, hobe du erronka egunero ezartzea: gaur ez dut erreko. Emakumeari ere egunez egun joatea proposatu diot, taxi geltokirako bidean; apurka ikas dezan txarto tratatzen duen gizona gabe bizitzen. Buruan nahaste-borraste handia duela aitortu du, baina sinetsi dit ondo maiteko duen norbait merezi duela esan diodanean.

Taxia hartu aurretik besarkada bat eman diogu elkarri. Estu heldu nau, eta konturatu naiz berotasuna eskertu duela gehien, ulertua sentitzea, sikiera bidearen zati batean norbait alboan edukitzea, bakarrik ez dagoela adieraztea. Batzuentzat aitzakia izan arren, legeek eta protokoloek ez dute halakorik debekatzeko.

***Estu heldu nau, eta
konturatu naiz berota-
suna eskertu duela
gehien, ulertua sen-
titzea, sikiera bidearen
zati batean norbait
alboan edukitzea,
bakarrik ez dagoela
adieraztea***

Alerta: ¡Las mujeres nos queremos vivas

Jone Bengoetxea, ELA genero politiken arloa

No todas las muertes valen igual. No es lo mismo un muerto que una muerta. No es lo mismo una muerte que un asesinato. Las mujeres y los hombres no valemos lo mismo en esta sociedad. ¡Qué obviedad! ¿O no?

No se me olvidan tampoco, otros tantos factores que hacen que todas las muertes y asesinatos no valgan lo mismo. Para muestra los asesinatos y muertes de París, Siria, Palestina, Kenya, Kurdistán, Líbano o los cadáveres en las infranqueables fronteras europeas, además de un interminable etcétera.

Pero esta vez toca hablar de mujeres, de mujeres asesinadas y agredidas por hombres, para ser más precisa. Estamos en vísperas del 25 de noviembre, día internacional contra la violencia sexista, y aún comprobando que las cifras de asesinadas en el estado español en las últimas semanas se acercan a cifras de guerra, esta sangría parece no adquirir el grado de prioridad política en las agendas de los altos mandatarios.

El terrorismo machista tendrá que esperar ante la urgencia de combatir el terrorismo yihadista y sal-

varnos de su amenaza mundial. Esto sí que es importante y para ello se actúa en consecuencia recurriendo incluso a la vía militar. No olvidemos tampoco que en estos momentos se habla de guerra en Francia y como tal, se trata de un gran negocio sobre todo para la industria armamentística, que entre otros, cotiza al alza en estos momentos.

Por lo tanto, las vidas de las mujeres asesinadas por hombres, parejas, ex parejas u hombres cualquiera en nuestra sociedad y en nuestro entorno son "amortizables políticamente" o "socialmente asumibles" al no alterar el orden ni la paz social ni mundial. Sería bastante iluso pensar lo contrario a pesar de que se cumpla el protocolo de rigor y la respuesta institucional formal se limite a cumplir expediente sin aumentar o poner a disposición más medios de actuación ante la violencia sexista.

Y ante esta realidad, algunas nos preguntamos: el patriarcado, pilar sobre el cual se sustenta la violencia sistémica ejercida contra las mujeres, ¿no es una amenaza global?, ¿no es también alimento y nutriente central de las guerras y característica fundamental en el ejercicio del poder universal masculino?

MAITE ASENSIO LOZANO



1983an jaio zen Bilbon, eta han bizi izan da ia beti, duela urte eta erdi Donostiara mugitu zen arte. Berria egunkarian egin du kazetari ibilbidea. Gizartea sailean dabil 2007tik, baina urtebetez Bizkaiko Hitza astekaria koordinatu zuen, 2010ean, hura martxan jarri zutenean. Genero gaietan espezializatu da, eta ondorioz, prentsa idatziaren Argia saria jaso zuen 2014an, kazetaritzan genero ikuspegia lantzeagatik. Egun, Gizartea saileko koordinatzailea da, Andoingo erredakzio nagusian. Berriatik kanpo ere, Kazetarion Berdinsarea taldean parte hartu zuen, hedabideetan genero ikuspegia nola txertatu aztertzen, eta Pikara Magazine martxan jartzeko prozesuan ere lagundu zuen.

Coordinadora de la sección Sociedad del periódico Berria. Recibió el premio de la prensa escrita Argia Saria 2014, por su trabajo sobre la perspectiva de género en el periodismo. Participó en Kazetarion Berdinsarea, analizando cómo incluir la perspectiva de género en la prensa, y colaboró en la creación de Pikara Magazine.

El patriarcado o ese sistema de organización social basado en las relaciones de jerarquía entre los sexos quizá suena a abstracto, a impalpable e incluso incómodo y sobre el cual es casi imposible actuar. Cuesta citarlo y ni se ve ni se toca a la hora de marcar prioridades políticas y menos a la hora de establecer medidas de acción. No se encuentra dentro de ningún eje del mal ni supuestamente representa una amenaza a la democracia ni a la civilización.

Quizá esta invisibilidad o ese no poder palpar el machismo y el patriarcado hace que una gran parte del imaginario social no contemple los asesinatos de mujeres como cuestión de alarma social ante la cual hay que responder con urgencia. Sin embargo, es motor y palanca de desigualdad e injusticia a escala planetaria al ser parte intrínseca de la propia configuración del poder hegemónico. El PODER con palabras mayúsculas.

No todas las injusticias provocan las mismas reacciones a pesar de que el discurso oficial y el protocolo de rigor se empeñen en decir lo contrario. Y de alguna manera tiene su lógica: lo que no te toca de cerca o ni siquiera crees que va contigo no te afecta o lo hace de manera anecdótica. En realidad, a la mayoría le emociona más la victoria de su equipo de fútbol local que una sangría de mujeres asesinadas a manos de hombres que supuestamente las querían.

Sé que son cosas distintas, que se trata de reacciones sociales distintas ante fenómenos o realidades que nada tienen que ver aparentemente, y que alguno/a se pueda sentir molesto/a con tamaña aseveración. Pero lo cierto es que: ¿cuál es la reacción ante los asesinatos y agresiones sexistas?, ¿los responsables institucionales y los medios de comunicación qué están haciendo al respecto?, ¿qué hace-

mos nosotros/as en nuestro cotidiano?...

Al escribir estas líneas siento que mucha gente se puede sentir atacada. Lo cierto es que hace poco fui interpelada por unos conocidos que equiparaban los asesinatos de las mujeres con los asesinatos perpetrados contra hombres (sin aclarar la causa o causas), los accidentes laborales o los suicidios. Todo en el mismo saco.

Existen casuísticas particulares; está claro que existen hombres que rompen las reglas y desafían los dictados de género normativos. No es objeto de este artículo arengar a una guerra entre mujeres y hombres. Pero de ahí a poner en cuestión la desigualdad estructural de base existente entre mujeres y hombres, hay un buen trecho. No surgen tantas dudas cuando hablamos de clase o de raza.

Lo cierto es que es ésta (la desigualdad estructural de base entre mujeres y hombres) y no otra la razón de fondo que pone en peligro la vida de millones de mujeres en todo el mundo.

Para terminar, quería apuntar que ya hay una alerta en la calle que grita que las mujeres nos queremos vivas. Con el movimiento feminista al frente, los movimientos sociales y el sindicalismo de contrapoder estamos interpelados también a visibilizar y denunciar con urgencia y con más ahínco esta guerra silenciada y que para el establishment es de bajo impacto. Tanto dentro como fuera de nuestras organizaciones, en procesos de toma de conciencia individuales y colectivos que nuestras palabras se conviertan en acciones: ¡NO A LA VIOLENCIA SEXISTA!

